




Lezama Bizirik



Lezama Bizirik

Gaiak:

- AASSek bidea ematen diote PT Pri.
- Kurutze: Del abandono a las buenas palabras.
- Alkate berriaren “hitz onak”.
- Reunión Lezama Bizirik- PSOE.
- Errekatxuarekiko kezkak.
- Lezaman... kamioiak Bai!
- Athletic eta kasualitateak.
- “Lezamako Mugetatik 2008” en marcha.

"

AASsek bidea ematen diote PT Pri

ZER EGIN AHAL DUGU LEZAMAKO INBASIO INDUSTRIALA ERAGOZTEKO?

EZETZ ARETXALDE ETA MADARIA LANDA GUNEEI, GARAIOLTZA ETA
URGOITI HIRIGUNE KALIFIKATZEKO SAIOARI...

Arau Subsidiarioei buruz susmatzen genuen urtebete luzeko isiluneak ez zuela ezer onik ekarriko.

Udalak hasierako onespna 2005eko azaroan onartu zuenetik Diputazioa eta Eusko Jaurlaritzaren behin behineko onarpenaren zain egon gara.

Behin baino gehiagotan eztabaideatu dugu Lezamako Udalarekin Lurralde Plan Partzialari buruz eta horrek ekarriko ote zuen Lezamako inbasio industriala. Orduko alkateak, eta oraingoak ere bai, esaten zuten ez zetozela bat LPParekin baina bere kontra jartza ez zela "inteligente". Eurek nahiago omen zuten aldeko jarrera agertu eta gero, praktikan, gauzatu behar zenean, "mugatu" garapen industriala Kurtze eta Ugarteko poligonoetara. Aretxaldeko erdialdea "babesteko" proposatzen zuten bi nekazal gune sortzea: Madaria eta Aretxalde. Etxebizitzen garapen horrek eragotzikor luke pabiloiak eraikitzea eta errepeide interpoligonalaren beharra justifikatzea, LPPak kontrakoa agindu arren.

Baina orain badakigu zein den, argi eta garbi, EJaren erantzuna "...Bilbo Metropolitarren Lurraldeko Plan Partzialaren garapena ez hipotekatzeko,... Aretxalde eta Madariako guneak deskalifikatu egingo dira landa-gune bezala"

Beraz, hauteskundetako propagandan zein aldizkari koloretsuetan hainbeste tontakeri esan eta gero, hara non guk egiten genuen irakurketa zuzena zen, eta denborak eta legeak bakoitza bere tokian jarri duen. Badakigu Udalaren joera dela legeak, komeni ez zaizkionean, saihestea eta interes partikularrei men egitea, baina, jarrera hori beti ez da posible.

Eta orain zer? Zein da udalaren egitasmoa? Zein izango da estrategia "inteligente" berria Aretxaldeko inbasio industriala eragozteko? Zer egin behar dugu/dute, denbora gutxi barru, Lezama ez izateko Bizkaiko herririk industrializatu eta kutsatuinetarikoa?

Argi dago. Orain bai! Estrategia eraginkor bakarra izango da Lurralde Plan Partziala aldatzeko eskaera egitea, beste hairbat herritan aztertzen ari direna, Getxon adibidez, eta gure aldetik, berehala, Udal-talde guztiei proposatuko dieguna.

Aipatutako gaietatik aparte badira kontuan hartzeko moduko beste aldaketa batzuk ere, derrigorrez bete beharko direnak, EJKo txosten/dekretuan. Adibidez, UE 7 (Urgoiti) eta UE 8 (Garaioltza) ezin dira urbanotzat kalifikatu herrigunetik aparte, loturarik gabe, daudelako. Hori ere bagenekien, baina...

Eta beste bat are larriagoa. Uren Zuzendaritzaren txostenaren arabera, orain arte ur azpian gera zitezkeen lur sailak, beraz, eraiki ezinak zirenak, eta ez hori bakarrik, bertan dauden eraikinak leku aldatzea gomendatzen zenean, orain, guzton lotsarako, txosten "berri" bati esker ez omen dira geratuko ur azpian inoiz ere, eta gainera Asua errekkaren ibilbidea aldatzeko baimena onartzen zaie. Orain arte legez guztiz debekatuta zegoena...baimenduta!. Ikusten denez badago zertaz hitz egin, zer azertu, zer egin hemendik aurrera gure herria defendatzeko, gure burua babesteko, herria desitxuratuko duten eraso bortitzen aurrean.

**Merezi duelako, etor zaitez Auzokideen Batzarrera datorren azaroaren
30ean, barikua, arratsaldeko 19:30etan Kultur Aretora.
Lezama Bizirik Auzo Elkarteak deitzen du.**



"LAS NNSS RATIFICAN EL PTP ¿COMO SE VA A IMPEDIR LA INVASIÓN INDUSTRIAL DE LEZAMA?.

EL GOBIERNO VASCO DENIEGA LOS NUCLEOS RURALES DE ARETXALDE Y MADARIA Y LA CALIFICACION URBANA DE GARAIOLTZA Y URGOITI

Desde el 29 de noviembre de 2.006 que el Ayuntamiento aprobó las Normas Subsidiarias se estaba a la espera de lo que dijeran el Gobierno Vasco y la Diputación. Ya sospechábamos que el silencio de un año no presagiaba nada bueno.

Meses atrás mucho discutimos con el Ayuntamiento sobre si su apoyo al PTP acarrearía la invasión industrial de Lezama. El Alcalde de entonces y la alcaldesa de ahora decían que no estaban de acuerdo con el PTP pero que lo aprobaron porque oponerse a él no era "inteligente". Dijeron que "limitarían en la práctica" la expansión industrial a las zonas de Kurutze y Ugarte y para "proteger" la zona central calificarían como núcleos rurales a Madaria y a Aretxalde. Según ellos el desarrollo residencial de esos núcleos impediría de hecho tanto la construcción de la carretera industrial inter poligonal como la instalación de pabellones o fábricas, dijese lo que dijese el PTP.

Ha pasado un año y ya tenemos la respuesta del Gobierno Vasco: "los nuevos núcleos rurales que se plantean no son admisibles...ya que hipotecarían los desarrollos (industriales) previstos por el PTP". Más claro agua.

Después de las toneladas de tonterías vertidas en hojas electorales y revistas a todo color, el tiempo acaba poniendo a cada cual en su sitio, y resulta que los "alarmistas" teníamos razón.

Y ahora viene la pregunta del millón: ¿Ahora qué? ¿Qué piensa hacer el Ayuntamiento para evitar la invasión industrial de todo Aretxalde, una vez que su "inteligente" estrategia se ha venido abajo? ¿Qué van a hacer para que Lezama no acabe siendo uno de los pueblos más industrializados y contaminados de Bizkaia?

Parece claro, esperamos que ahora sí, que no cabe más estrategia que pedir la modificación del PTP (en otros pueblos como Getxo también lo están estudiando), cosa que, desde ya, plantearemos a todos los grupos del Ayuntamiento. Veremos pronto qué dice cada cual.

Siendo esto lo más grave hay otras cosas importantes en el informe definitivo de Diputación y Gobierno Vasco. Por ejemplo que no se podrán calificar como urbanos los terrenos destinados a las Unidades de Ejecución UE-7(Urgoiti) y UE-8 (Garaioltza) porque son "desarrollos desconexos del núcleo central de Lezama". Esto también era más que evidente.

Y también, para vergüenza de técnicos y políticos de las diferentes administraciones y consultorías y gabinetes "amigos", el chanchullo disfrazado de informe hidrológico municipal por el que donde antes había terrenos inundables donde no se podía construir viviendas, ahora apenas hay peligro de inundación y hasta se puede volver a modificar el trazado del río, burlando la Ley, a cambio de unas pequeñas "compensaciones". Verdaderamente impresentable. De esas y otras muchas cosas tenemos para informar, comentar y para ver que podemos hacer de aquí en adelante para defendernos y defender nuestro pueblo, mientras aún nos quede algo que defender

**ACUDE A LA ASAMBLEA DE VECIN@S EL 30 DE NOVIEMBRE, VIERNES. A LAS 19:30 EN EL
AULA DE CULTURA.**

CONVOCA : LEZAMA BIZIRIK AUZO ELKARTEA

Nota: A la publicación de este Boletín nos llega la hoja "informativa" del Ayuntamiento. Por una parte la confirmación de que se pretende una auténtica invasión industrial de Lezama. Y, por otra parte, la confirmación también de que el Ayuntamiento o sigue sin enterarse o sigue queriendo engañar a los vecinos. Alcaldesa y equipo de gobierno quedan invitados a la asamblea del día 30, por si quieren aclarar algo... o aclararse ellos



ACERAS, PARQUE, EQUIPAMIENTOS...
¿FELIZ COINCIDENCIA EN KURUTZE O SÓLO BUENAS PALABRAS?



Los administradores de los 4 bloques de casas de Kurutze fueron convocados a una reunión por los corporativos del ayuntamiento a las 19,30 del 24 de septiembre. Miembros de la asociación de vecinos "Lezama Bizirik", a petición de los vecinos del barrio, venían reuniéndose anteriormente con los administradores para trabajar respecto a las necesidades más urgentes y los pasos a dar para solucionarlas. Precisamente el mismo día 24 de septiembre a las 20 horas, estaba prevista otra reunión de los administradores y miembros de "Lezama Bizirik" para ver cómo iba la recogida de firmas del escrito que sería entregado al ayuntamiento. Dicha reunión fue aplazada para que los administradores pudieran acudir a la reunión con los corporativos.

"Lezama Bizirik" celebra que el Ayuntamiento por primera vez en 30 años haya llamado a los administradores para ver las carencias que sufre Kurutze. Quizá sea porque la Alcaldesa ha sido vecina del barrio y sea más sensible ante sus necesidades, ya se verá.

En cualquier caso, deseamos que la reunión celebrada no quede en palabras y promesas incumplidas. En ese sentido va dirigido el escrito, promovido por los administradores y "Lezama Bizirik", donde quedan reflejadas las urgencias. Escrito avalado por las firmas de los vecinos que será presentado y entregado al Ayuntamiento.

"Lezama Bizirik" se compromete a caminar junto a los vecinos de Kurutze en esta carrera, esperamos que no sea de obstáculos, hasta llegar a la meta. En concreto en los próximos días entregaremos en el Ayuntamiento las firmas de la práctica totalidad de los vecinos de los cuatro bloques solicitando los equipamientos mínimos que cualquier barrio merece.

A propósito, el próximo año 2008 puede ser un año inolvidable para los vecinos de Kurutze y de toda Lezama. Se celebra el 30 aniversario de la finalización de los dos últimos bloques y, desde ya, hay que empezar con los preparativos. A ver si es cierto que pronto podemos andar y correr tranquilamente por la nueva acera que une Centro-Kurutze, Larrabetzu-Zamudio y que al barrio se le reconoce su estatus como tal en Lezama.

ALKATE BERRIA ETA BERE "HITZ ONAK" ELKARTEAREKIKO

Uztailaren 11an alkate andrearerek eta bere taldearearekin bildu ginetik 4 hilabete pasatu dira. Aurreko Boletinean berri eman genuen legez, bileran hitz onak eta gure harremanak "normalizatu" ahalengintzeko konpromisua elkarri eskaini genizkion. Alkate andreak eta enparauek hitza eman ziguten ("hori eginda dago" izan ziren hitzak) sikeran gure elkartea beste herriko elkartea bezala tratatzeko eta, zehatzki, gure izena beste elkartetakoekin agertzeko Udalaren Web, Boletin zein edonolako orriean.

4 hilabete igarota, 123 egun, hutskeri hori ere ez dute oraindik bete. Hori al da udal gobernu berriaren espero dezakegun zintzotsauna eta eraginkortasuna?



REUNION LEZAMA BIZIRIK AUZO ELKARTEA-GRUPO MUNICIPAL DEL PSOE

El 6 de noviembre, siguiendo con la ronda de encuentros con todos los grupos municipales de Lezama, nos reunimos con la concejala de Lezama del PSOE.

La reunión a la que asistieron la concejala y el responsable de su partido de Txorierri sirvió para intercambiar puntos de vista sobre los problemas urbanísticos y medioambientales más importantes para nuestro pueblo, y más concretamente las amenazas más graves que representan el PTP y las NNSS del Ayuntamiento recién aprobadas.

Los representantes del PSOE, aún reconociendo que su partido aprobó en Diputación el PTP, estaban de acuerdo en que las propuestas que hace para el Txorierri y para Lezama son excesivas, desequilibradas y favorecen la especulación. De modo que se mostraron dispuestos a estudiar propuestas para defender Lezama de posibles proyectos que atenten contra la sostenibilidad o la calidad de vida.

En ese sentido les informamos de la intención de Lezama Bizirik de proponer en breve a todos los grupos municipales que presenten una moción solicitando a Diputación la modificación del PTP.



LEZAMAKO PLATER-TIROKO INSTALAZIOEKIKO ZALANTZAK

Azken uda honetan hainbat lagun Lezama Bizirik-engana jo dute Plater tiroaren jarduerari buruz galdezka (Biberoko bidean dagoen Plater tiroa). Gaia apur bat aztertu ondoren Lezamako Udalari bi galdera luzatu dizkiogu: lehena jardueraren lizentzia edo baimenari buruzkoa -zeinek emanda, noiz...-; bigarrena legez derrigorrezkoa den bakarkako ingurumen azterketa eginda duen ala ez (1998/02/27an onartua eta martxoaren 27an argitaratua).

Azaroaren 5ean jaso genuen erantzuna: Plater tiroa Udalarena da; jarduera lizentzia Guardia Zibilaren Zuzendaritza Orokorrak 86an eman zuen; 98ko Ingurugiroa babesteko Lege orokorraren aurrekoan denez ez omen du behar ingurumenari lotutako banakako ebaluazio txostena.

Azken hori harrigarria iruditu zaigunez berehala jarri gara kontaktuan Foru Aldundia eta Eusko Jaurlaritzaren Ingurumen sailekin, eta berrien zain gaude.



LEZAMATIK KAMIOIAK BAI!

Orain arte errepidetik etorrita erraza zen jakitea non hasten zen Lezama: espaloia amaitzen ziren lekuak bertan. Oraindik aurrera beste ezaugarri bitxia edukiko dugu adierazle: kamioak pasa daitezkeen herri bakarrenetarikoa izango da Lezama.

Horrela da. Badira urte batzuk Zornotzako Udalak neurri zentzuduna hartu zuela: kamioak herrigunetik ezingo zuten pasa, horretarako baitzegoen zirkunbalazioa. Gauza bera erabaki dute hainbat eta hainbat udalek urte hauetan, azkena Zamudiokoak. Aurtengo urritik aurrera kamioak debekatuta daude Zamudioko hiri kaskoan. Logikoa! Ez dugu ba korridore famatu hori ondo ondoan?

Lezamako Udalean, antza, ez dira, momentuz, jabetu. Noiz arte?

Athleeeeeetic.....EUP , edo KONTUZ?

Gaur egun Athleticen instalazioek kaltea baino ez dakarte Lezamako herritarentzat. Orain urte asko , hasi hasieran, eragina jasangarriagoa bazen ere, denborarekin sama astunegia bihurtzen ari da lezamarron bizi kalitatearentzat. Lurzoruaren etengabeko okupazioa, argi eta zarata kutsadura geroz eta handiagoa... Eta zenbait domeketan zaleen inbasioa, kotxe pilaketak, herri bideak eta soloak aparkalekutzat hartzen inolako errespetu barik.

Ordua da egoera hau bideratzeko. Udalak Athleticen jarduera , instalazioak eta eragina kontrolatu eta arautu egin behar ditu beste edonorrekin egiten duen legez. Eta benetan tamalgarria da, Udalari dagokionez, kirol ekipamendu hain eskas daukan herri batek horrelako instalazio erraldoiak jaso behar izatea hainbeste urtetan zehar, Athleticekin instalazio horiek nolabaiteko erabilera publikoa hitzartu barik



ATHLETIC , AASS ETA KASUALITATEAK

Zer eskaintzen dio Atletic-ek Lezamari eta lezamatarroi?...Erantzuna baldin badakizu eskertuko genizuke...guk ere jakin nahi dugu.

Zer eskaini dio Lezamako Udalak Atletic-i azken Arau Subsidiarioetan? 149.540 m²-ko eremua birsailkatzea eta lurzoru ez urbanizagarria hiri-lurzoruan sartzea, beraz urbanotzat birsailkatzea. Ai, ai, ai...Zertarako? Zelako negozioa ikusi du baten batek.

..
Gainera eraikigarritasuna haztea proposatzen du Lezamako Udalak 9.412 m² ia bikoiztu arte. Zertarako? Lezaman zeinek eskatu ditu birsailkatzea eta eraikigarritasuna handitzea? Zeinen mesederako? Kasualitatea izango da Arruti jauna, AASSen arkitekto egilea, Atletic-en zuzendaritzaren kidea izatea Arau Subsidiarioak tramitatzen hasi zirenean?

Test bat egingo dugu:

-Bai, kasualitatea izan da ?

-Ez, ez da kasualitatea izan ?

(Oharra: Foru Aldundiari kasualitatea “susmagarria” iruditu omen zaio , birsailkatze saiakerari ezetza borobila eman baitio .)



LEZAMAKO MUGETATIK: AURTENGO ARRAKASTAREN OSTEAN... 2.008KOA PRESTATZEN

294 participantes, 60 personas en la organización, vecin@s de Lezama Bizirik, montañer@s de Gailur, euskaltzales de Zorrizketan, gaupaser@s de Basobaltz colaborando....

La Martxa -Lasterketa LEZAMAKO MUGETATIK 2007 fue un verdadero éxito en todos los sentidos y, sin duda, la manifestación deportiva de carácter popular más importante que se ha dado nunca en Lezama. El trabajo en pos de la recuperación de los caminos vecinales tiene un altavoz de lujo. Estamos satisfechos y orgullosos en lo que nos toca, pero después del agradecimiento sincero a tod@s l@s laguntzailes por su esfuerzo desinteresado y del obligado reconocimiento a los exponsores (BBK, Patxi Kooperativa, Gara, Coca Cola, Euskaltel...), ya nos hemos puesto en marcha para que la edición del 2.008 sea aún mejor.

El día 16 de noviembre hemos montado, junto a Gailur, una fiestita en el Txoko de Goitioltza, a las 20:00horas. Podremos ver una película y muchas fotos de la Martxa-Lasterketa de este año, y se informará de las novedades que ya estamos introduciendo para el 2.008. También tendremos oportunidad de picar algo y charlar con los organizadores, participantes, y quien quiera venir. La invitación está abierta a todo el mundo. ¡No te lo pierdas!



Lezama Bizirik

Defendatu Lezama gurekin, bazkide egin zaitez!

Izena:.....
Abizenak:.....
E-posta:.....
Helbidea:.....
Herria:..... Tlfno:.....